


Baliabide fisikoen bidez zerbitzua eskaintzeko beharreko instalazio eta material egokiak izango ditugu. Hileta-zerbitzuari arreta emateko espazio bat antolatuko da, bezeroei arreta emateko bulegoekin eta zerbitzuak planifikatzeko bilera-gela batekin; gorputzak kontserbatzeko prestatutako areto bat egokituko da. Era berean ekitaldi-areto bat egongo da zeremoniak egiteko behar den espazio eta materialekin. Horrez gain, beharrezkoak izango dira gorpuk eta materialak garraiatzeko ibilgailuak eta hileta zerbitzuen dekorazioa eta tematizazioa ahalbidetzeko hornidurak. Altzariak ere beharrezkoak izango dira gauzak

antolatzen. Bestalde gailu digitalak beharrezkoak izango dire; ordanagailuak, telefonoak...

Finantza baliabideak

Baliabide ekonomikoak hasierako inbertsioan eta kapital operatiboan banatuko dira. Hasierako inbertsioak instalazioak egokitzera eta baliabideak, materialak eta dekorazioa erostera bideratuko dira, baita ibilgailuak, hornidurak eta beharrezko teknologia eskuratzea ere; lizentziak eta baimen legalak eskuratzea ere ezinbestekoa da. Kapital operatiboarekin langileen soldatak eta ordainsariak, kontsumorako hornidurak eta hornikuntza materialak eta marketin eta publizitate estrategiak ordainduko dira. Horretaz gain, kontingentzia funts bat sortuko dugu zerbitzuen eskariaren aldakortasunaren eraginez edo ustekabeko gorabeheren eraginez sortutako diru galerak estaltzeko.

Baliabide intelektualek



Baliabide intelektualei dagokienez, marka sendo bat sortzea eta hura babesteko patenteak eskuratzea funtsezkoa da. Zerbitzua eskaintzeko beharrezko hileta- eta lege-arauen ezagutza sakona beharrezkoa dugu, baita tanatopraxian eta tanatoestetikan prestakuntza eguneratua. Bezeroari arreta eskaintzeko trebetasun emozionalak landuko dira, familia bakoitzaren behar pertsonalak ulertuz eta errespetatuz. Marketin eta harreman publikoen estrategiak ongi garatuko dira zerbitzuaren ezagutzera emateko eta komunitatearekiko lotura sustatzeko. Kultur eta erlijio aniztasuna kontuan hartuko da eskaintza zabala eta inklusiboa bermatzeko.